

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

7161

193/2011 FORU AGINDUA, abenduaren 12koa. Honen bidez, onartu egiten dira Toki Administrazioaren eta Lurralde Oreaken Saileko foru diputatuaren ekainaren 23ko 317/2011 Foru Aginduaren bidez ezarritako baldintzak. Azken foru agindu horren bidez, behin betiko onartu zen Murgiko 2 poligonoko 41, 42 eta 43 lurzatiaren eremuan Zuiako udalerriko planeamenduko arau subsidiarioen 1. aldaketa egiteari buruzko espedientea.

I.- AURREKARIAK

Lehenengoa.- Toki Administrazioaren eta Lurralde Oreaken Saileko foru diputatuaren ekainaren 23ko 317/2011 Foru Aginduaren bidez, behin betiko onarpena emango zitzaion aipatutako espedienteari, baldin eta foru agindu horretan ezartzen ziren zenbait baldintza betetzen baziren.

Bigarrena.- 2011ko azaroaren 22an, baldintzak betetzeari buruzko espedientearen testu bateratua sartu zen Aldundiaren Erregistro Orokorrean.

II.- OINARRIAK

Igorritako agiriak aztertu dira eta egiaztatu da aipatutako foru aginduan xedatutakoa betetzen dutela, hau da, foru agindu horrek zehaztutako aldaketak jasotzen dituela.

Hori dela eta, dagozkidan ahalmenez baliatuz, hauxe

XEDATU DUT:

Lehenengoa.- Betetzat jotzea Toki Administrazioaren eta Lurralde Oreaken Saileko foru diputatuaren ekainaren 23ko 317/2011 Foru Aginduaren bidez ezarritako baldintzak. Foru agindu horren bidez, behin betiko onartu zen Murgiko 2 poligonoko 41, 42 eta 43 lurzatiaren eremuan Zuiako udalerriko planeamenduko arau subsidiarioen 1. aldaketa egiteari buruzko espedientea.

Bigarrena.- Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Hirugarrena.- Ebazpen honek administrazio bidea agortu du, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da zuzenean, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan; horretarako, bi hilabete izango dira, hura jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko abenduaren 12a.- Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaria, MARTA RUIZ CERRILLO.

MURGIKO 2 POLIGONOKO 41, 42 ETA 43 LURZATIEN EREMUAN APLIKATU BEHARREKO ARAUDIA**ZUZKIDURA LURZORUA**

XEDEA: Zuzkidura lurzoru kalifikaturiko eta agiri grafikoetan mugaturiko hiri lurzoruari aplikatuko zaio ordenantza hau; baita ekipamenduko tokiko sistema grafiaturiko lurzatiei ere.

URBANIZAZIO KARGAK: Ordenantza honek arauturiko zonak zer erakunderen mende dauden, haiexen kontura egikaritutako dira hiri zerbitzuak eta instalazioak. Udalaren urbanizazio proiektua aurkeztu beharko da obrak egin aurretik, obra baimena emateko. Erakunde sustatzaileak izango du haiek mantendu eta onik zaintzeko ardura harik eta, hala badagokio, udalbatzari eskualdatu arte.

BAIMENDUTAKO ERABILERA XEHATUAK ETA HAIEN KOKALEKUAK:

E: 1/1000 eskalako agiri grafikoetan adierazitakoak dira lurzati bakoitzaren erabilera.

OIN BERRIKO ERAIKUNTZAKO ESKU HARTZEEI APLIKATU BEHARREKO HIRIGINTZA ETA ERAIKUNTZA PARAMETROAK:

Eraikigarritasuna, gehienez:

Kirol erabilera: 0,70

Hezkuntza, aisia, osasun, kultur, laguntza eta administrazio arloko erabilera: 2,00

(Eraikigarritasuna: m² eraiki/ m² lurzati garbi)

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y URBANISMO

7161

ORDEN FORAL 193/2011, de 12 de diciembre, de aceptación del cumplimiento de las condiciones impuestas en la Orden Foral 317/2011, de 23 de junio, del Diputado Foral de Administración Local y Equilibrio Territorial, por la que se aprobó definitivamente el expediente de 1ª modificación de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Zuia, en el ámbito de las parcelas 41, 42 y 43 del polígono 2 de Murgia.

I.- ANTECEDENTES

Primero.- Mediante Orden Foral 317/2011, de 23 de junio, del Diputado Foral de Administración Local y Equilibrio Territorial, se aprobó definitivamente el expediente de referencia, quedando condicionada dicha aprobación al cumplimiento de una serie de condiciones que dicha Orden establecía.

Segundo.- Con fecha 22 de noviembre de 2011 tuvo entrada en el Registro General de la Diputación un texto refundido del expediente cumpliendo las condiciones citadas.

II.- FUNDAMENTOS

Analizada la documentación aportada se comprueba que ha dado cumplimiento a las modificaciones impuestas en la Orden Foral mencionada.

En su virtud, haciendo uso de las facultades que me competen,

DISPONGO

Primero.- Dar por cumplidas las condiciones impuestas en la Orden Foral 317/2011, de 23 de junio, del Diputado Foral de Administración Local y Equilibrio Territorial, por la que se aprobó definitivamente el expediente de modificación de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Zuia, en el ámbito de las parcelas 41, 42 y 43, del polígono 2 de Murgia.

Segundo.- Publicar la presente resolución en el BOTHA.

Tercero.- Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrá interponerse directamente recurso contencioso-administrativo, en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

Vitoria-Gasteiz, 12 de diciembre de 2011.- La Diputada de Medio Ambiente y Urbanismo, MARTA RUIZ CERRILLO.

NORMATIVA APLICABLE EN EL ÁMBITO DE LAS PARCELAS 41, 42 Y 43, DEL POLÍGONO 2 DE MURGIA.**SUELO DOTACIONAL**

OBJETO: Esta Ordenanza se aplicará sobre Suelo Urbano calificado como Dotacional, delimitado en la Documentación Gráfica, así como las parcelas grafiadas como Sistemas Locales de Equipamiento.

CARGAS DE URBANIZACIÓN: La ejecución de los servicios e instalaciones urbanas, correrá a cargo de los organismos de quienes dependan las zonas reguladas por la presente Ordenanza. Previamente a la ejecución de las obras se presentará Proyecto de Urbanización al Ayuntamiento, al objeto de proceder a la concesión de licencia de obras. El mantenimiento y conservación de las mismas será a cargo de la entidad promotora hasta su traspaso, si procediera, a la Corporación Municipal.

USOS PORMENORIZADOS AUTORIZADOS Y LOCALIZACIÓN DE LOS MISMOS:

Los usos de cada parcela serán los señalados en la Documentación Gráfica a E: 1/1000.

PARÁMETROS URBANÍSTICOS Y EDIFICATORIOS APLICABLES A LAS INTERVENCIÓNES CONSTRUCTIVAS DE NUEVA PLANTA:

Edificabilidad máxima:

Uso deportivo: 0,70

Uso educativo, recreativo, sanitario, cultural, asistencial y administrativo: 2,00

(Referido a la relación: m² construidos/ m² de parcela neta).

Aurrealdeko mugen gutxienezko neurriak: berriro lurzaticatzetik ateratako lurzati berrien aurreko mugek 25 metro edukiko dituzte.

Eraikinetatik mugaraino egon behar duen gutxienezko distantzia: 5 m, salbu eta eraikina erabiltzeko gomendagarri bada mugari lerrokatzea, mugakideak baimena ematen baldin badu horretarako.

Foru sarearen errepideren batekin muga egiten duten lurzati eraikien kasuan, non hango eraikinaren perimetroa errespetatuta grafiatu den lerrokadura, berritze, birgaitze edo handitze kasuetan baino ezin izango da egin lerrokadura hori. Eraikin hori eraitsi ondoren, eta oin berriko edozein esku hartze egin ahal izateko, nahitaez errespetatu beharko dira Arabako Foru Aldundiaren errepideen arloaz arduratzen den sailak errepide sekzio bakoitzarentzat definituriko distantzia nagusiak.

Lurzati bereko eraikinen arteko gutxienezko tartea: Bien arteko tartea gutxienez 5 metrokoa izango da.

Jatorrizko kotaren gainetik gehienez egin daitekeen solairu kopurua: behe solairua eta beste bi

Gehienezko altuera, sestra kotaren gainetik: 12 metro erlaitzera edota hegalaria. Lurzatiaren muturrek maila desberdineko kaletara ematen badute, beheren dagoen kaletik edo espaloitik neurtuko da altuera.

Solairuen altuera libreak:

a.- Gutxienezko altuerak: a.1.- Beheko solairua: 3,00 m.
a.2.- Goiko solairuak: 2,50 m.

b.- Gehienezko altuerak: erabilerak eskatutakoak. Muga bakarra da aurreko paragrafoan eraikinerako zehaztu den altuera osoa.

b.1.- Erdisotoko solairua: kaleko sestratik 1 m gora egingo du gehienez, kaleko edozein puntutan neurtuta.

Lurzatiaren itxiturak: itxitura gardena edo landarez egindakoa, gehienez, 2 m-koa. Altueran gehienez 80 cm duen hormatxoa onartzen da. Ezin da itxiturarik egin zonan tradizionalak ez diren materialekin, ez eta itxituren bukaeretan oinezkoentzat kalteak ekar ditzaketen elementurik jarri ere. Lurzatiak ur bide batekin muga egiten badu, haren bazterren kanpoko ertzetik 5 m-ra egongo da itxitura.

Dimensiones mínimas de los linderos frontales: Los linderos frontales de las nuevas parcelas surgidas de la reparcelación realizada tendrán 25 m.

Separaciones mínimas de la edificación a linderos: Se establece en 5 m., salvo que el uso del edificio haga aconsejable su alineación al lindero, con la autorización del colindante.

Para aquellas parcelas edificadas y colindantes con alguna Carretera de la Red Foral, en las que se ha grafiado la alineación respetando el perímetro de la edificación existente, dicha alineación se admitirá únicamente en los casos de reforma, rehabilitación o ampliación. Una vez demolido dicho edificio y en cualquier intervención de nueva planta, será obligatorio respetar las distancias generales definidas por el Departamento de carreteras de la Diputación Foral de Álava para cada sección de carretera.

Separaciones mínimas entre edificios situados dentro de la misma parcela: Deberán guardar una separación entre sí de al menos 5 metros.

Nº máximo de plantas sobre cota de origen: Baja más dos.

Altura máxima sobre cota rasante: 12 metros a la cornisa y/o al alero. Se medirá desde la calle o acera de rasante inferior, en las parcelas en que sus extremos den a calles de diferente nivel.

Alturas libres de pisos:

a.- Alturas mínimas: a.1.- Planta baja: 3,00 m.
a.2.- Plantas altas: 2,50 m

b.- Alturas máximas: Las demandadas por el uso con el límite de altura total del edificio, señalada en el apartado anterior.

b.1.- Planta semisótano: no podrá exceder 1 m. sobre la rasante de la calle en cualquier punto de ésta.

Cierres de parcela: Cierre transparente o vegetal hasta una altura máxima de 2 m., admitiéndose murete de 80 cm. de altura máxima. No se permitirá su ejecución con materiales no acordes con los tradicionales de la zona ni el remate de cerramientos con elementos que puedan causar lesiones a los viandantes. En el caso de que la parcela lindé con un curso de agua, el cierre se separará 5 m. de la arista exterior de su margen.

Iragarkiak

IDAZKARITZA NAGUSIA

7165

Diputatuen Kontseiluak 2011ko abenduaren 20ko ohiko bilkuran onartutako xedapenen laburpena.

- Foru dekretuak:

GIZARTE ZERBITZUEN SAILA

75/2011 Foru Dekretua, abenduaren 20ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, aldatu egiten da maiatzaren 17ko 41/2011 Foru Dekretuak onartutako Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoaren lanpostu zerrenda.

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

76/2011 Foru Dekretua, abenduaren 20ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, Arabako Ehiza Lurralde Kontseiluaren egitura eguneratzen da, foru aldundi honetako sailen egitura berrira egokitzeko.

77/2011 Foru Dekretua, abenduaren 20ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, Arabako Arrantza Lurralde Kontseiluaren egitura eguneratzen da, foru aldundi honetako sailen egitura berrira egokitzeko.

Anuncios

SECRETARÍA GENERAL

7165

Extracto de las disposiciones aprobadas por el Consejo de Diputados en sesión ordinaria celebrada el 20 de diciembre de 2011.

- Decretos Forales:

DEPARTAMENTO DE SERVICIOS SOCIALES

Decreto Foral 75/2011, del Consejo de Diputados de 20 de diciembre, que modifica la Relación de Puestos de Trabajo del Organismo Autónomo Instituto Foral de Bienestar Social-Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea, aprobada por Decreto Foral 41/2011, de 17 de mayo.

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y URBANISMO

Decreto Foral 76/2011, del Consejo de Diputados de 20 de diciembre, que actualiza la estructura del Consejo Territorial de Caza de Álava para su adaptación a la nueva estructura Departamental de esta Diputación Foral.

Decreto Foral 77/2011, del Consejo de Diputados de 20 de diciembre, que actualiza la estructura del Consejo Territorial de Pesca de Álava para su adaptación a la nueva estructura Departamental de esta Diputación Foral.